



Gazte Festei hasiera emateko gogo biziz daude

Hogeita bost urte betetzear da Urnieta Adarra Judo Club taldea. Ostiral arratsaldean jaien hasierako pregoia irakurriko dute / 4-7

Euskal Ligan

Leizaran Ernio Inmobiliaria eskubaloi taldearen balentria / 12

Urnieta KE taldeko senior mailako neska Kopako txapeldunorde, Oriokoren aurka galdu ondoren / 11

Zumeatarra kirol elkarteko kideek emaitza bikainak lortu dituzte proba hainbat probatan / 12

Luis Fracaren omenezko kontzertua, Bastero Kulturgunean, igande eguerdian / 14



URNIETAKO ZAINTZA EKOSISTEMA ARTIKULATZEKO PROZESUA



- Parte hartu etxeetara bidali den galdetegia erantzunez.
- Galdetegia Udalaren APP-an eta webgunean ere bete daiteke.

Azken eguna:
maiatzak 26

 www.urnieta.eus

 Urnieta.App







Z O Z K E T A




*Aiurriko
harpidedun
izateak
saria dakar*

**4 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu
Aiurriko Andoaingo eta Urnietako harpidedunen artean.**

Parte hartzeko modua:

- * Idatzi "Osinaga" mezua eta bidali whatsapp: 619 163 537.
- * Irabazle bakoitzak bina sarrera irabaziko ditu.
- * Saridunaren berri hurrengo astekarian emango dugu.
- * Parte hartzeko azken eguna: Maiatzak 27, astelehena



**Maiatzak 31, ostirala
20:00**

**Bastero Kulturgunea
ANDOAIN**

Askotariko erritmoak eskainiko ditu "Itsasoa bide bakarra" ikuskizun berrienean, mundu zabaleko folklorea inspirazio-iturri erabilita.



ANDOAINGO UDALA



AIURRI

Arrisku egoera

Aurreko larunbatean, iluntzeko 20:00ak aldera, Aita Larramendi kaleko 9. zenbakitik teila batzuk erori ziren espaloiera. Arrisku handiko egoera izanik, suhiltzaileak bertaratu ziren arrisku-egoera saihestera. Andoaingo Udaleko brigadak, hurrengo orduetan, gune hori babesteko neurriak hartu zituen.



AIURRI



AIURRI

Palestinarekin elkartasuna

Munduko hainbat tokitako ikasleek Palestinaren aldeko mezuak zabaldu eta akanpadak antolatuta dituzte. Euskal Herriko unibertsitateetan ez da oharkabean igaro nazioartea astindu duen gertaera. Andoainen, egunotan, Leizaran institutuko leiho batean ikusgai dago "Palestina Aske" dioen pankarta.

KOMUNITATEA

ZILEGI ESKOLA
URNIETA

Zilegi Astearen balorazioa



Eskalada saioa. ZILEGI ESKOLA

Orokorrean balorazio positiboa egin dugu. Zortzi saio izan dira eta, guztietan hartu dute parte herritarrek, nahiz eta aurreko edizioan baino gutxiago izan. Agian, saio batzuk jendetsuagoak izan dira beste batzuk baino, eta horri ere erreparatu behar diogu, aurrera begira, ikasleak nola motibatu asmatzeko. Saio praktikoei garrantzia ematen ahalegindu gara, lagungarria izaten delako. Era berean, euskaltegitik ateratzeko saiakera egin dugu eta ideia ederra izan da herriko beste espazio batzuk hartzea.

Datorren urtera begira, gure ametsa litzateke gai-emaile guztiak, aurrerantzean, urnietarrak izatea, izan ikasle, izan bizilagun. Horretan arreta berezia egin nahi dugu, xedea lortze aldera. Oso gustura amaitu dugu aurtengo Zilegi Astea, beraz, etorriko dira gehiago!



Sukaldaritza tailera. ZILEGI ESKOLA



Euskaraz barra-barra (e//) erakusleihoetan aurki daiteke. AIURRI

Euskararen aldeko zigilua Andoainen hedatzeko kanpaina

Euskararen erabilera bermatzen duen "Barra-barra" marka hedatu nahi du Andoaingo Udalak

Erredakzioa ANDOAIN

Euskaraz barra-barra (e//) marka bateratuaren helburua da bezero euskaldunei adieraztea euskaraz egiteko aukera dutela leku edo entitate horretan. Bermatuta egongo da toki horretan, beraz, euskaraz ulertuko duen langileren bat izango dela beti. Andoainen 62 merkatalgunetan aurki daiteke aipatu zigilua eta udaberri honetan toki gehiagotara hedatu nahi dute. Ekimena iaz abiatu zuten elkarlanean Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak.

Marka Eusko Jaurlaritzak kudeatuko duen arren, Andoainen, Udalaren Euskara Zerbi-

tzuak egingo du lanketa, zalan-tzak argitzeko eta ekimenaren nondik norakoak zehazteko. "Andoaingo establezimenduren batek marka eskuratu edo informazio gehiago nahiko balu, Euskara Zerbitzuarekin jarri behar du harremanetan: 943 300 831 telefono-zenbakira deituz edo euskarazerbitzua@andoain.eus e-postara idatziz", adierazi du Udalak ohar bidez.

Udaletik zabaldutako oharrean, bertan parte hartzera deitu dituzte merkatariak: "Herriko merkataria, ostalari eta zerbitzuetako langileei dei egiten diegu ekimen honetan parte hartzera eta bezeroei dagokien arreta egokia ematen segitzera".



Lanbroa tabernak badu zigilua. Argazkian, Mikel Arebalo eta Estebe Albisu. AIURRI

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

- Iritzia
- Postontzia

Gazte Festak Urnietan, ostiraletik igandera

Iker Lizarribarrek eta Adarra Judo Clubeko kideek emango diote jaiari hasiera, ostiral arratsaldean. Igande iluntzera bitarte dozenaka hitzordu iragarrita daude. Gehien-gehienak herriko eragileen lankidetzarekin antolatutakoak dira



Jendetza Gazte Festetako larunbat arratsaldean, Idiazabal kalean. AIURRI

MAIATZAK 24

OSTIRALA

- 16:30-18:30** Zezen mekanikoa Plazido Muxika plazan.
- 18:30** Buruhandiak, erraldoiak eta Bosko Anitz txaranga. Era berean, Olinpiaden finala.
- 19:00** Kantazaun kantujira, Etxeberri plazatik.
- 19:30** Txupinazoa udaletxetik. Egaperen emanaldia.
- 20:00** DJ Flowing Etxeberri plazan. Edaria eta janaria postua.
- 21:00** Afari tematikoa Jakutegin, Poxta Zaharren eskutik.
- 20:15** Kontzertua plazan: 20:15 Hamarretan Makulu 23:00 Bengo. 00:30 Lappa. Ondoren, DJ saioa.

MAIATZAK 25

LARUNBATA

- 10:00** Txanbolinen diana.
- 10:30** Urnieta Dantzan: Jaialdiaren hasiera plazan, dantzari txikien saio bereziarekin.
- 11:00** Urnieta Dantzan: Saioak Etxeberri plazan, lerdin plazan, Zaldundegi plazan, Zubitxo plazan, Plazido Muxika Plazan eta San Juan plazan.
- 12:00** Sagardo dastaketa San Juan plazan.
- 12:30** Urnieta Dantzan: Emanaldi nagusia ikastolan.
- 14:00** Herri-bazkaria, San Juan plazan.

16:30-18:30 Txirrindulari gazteak Idiazabal kalean.

18:00 Adabaki kale antzerkiaren eskutik: "Bapatean zirko" ikuskizuna Plazido Muxika plazan. Bukatzean, txokolatetxerria.

18:00-20:00 Incansables txaranga, Poxta Zaharrek antolatuta.

19:30-21:00 Lisker taldea, plazan.

23:00-01:00 Lisker taldea, plazan.

01:00 DJ Albabarruna, plazan.

MAIATZAK 26

IGANDEA

- 09:00-13:00** Autoen VI. Slaloma Erratzun.
- 10:00** Txanbolinen diana.

11:00 Kontzertu pedagogikoa, 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat, Lekaioko areto nagusian. Sarrera libre, aretoa bete arte.

11:00-13:00 Bizijolas tailer eta jolasak Jakutegi plazan eta Lourdes Iriondo parkean. Euriarekin, Egape ikastolan.

11:00-13:30 Antzara joko erraldoia Jakutegi plazan.

11:30 Pilotako finalak Kontzejupean.

12:45 Txanbolinen musika eta dantza emanaldia.

16:00-18:00 Bizijolas tailer eta jolasak Jakutegi plazan eta Lourdes Iriondo parkean.

18:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira plazatik abiatuta.

18:00 "Erremontari herriz herri". Partidak pilotalekuan: Loitegi-Eskudero / Zaldua II-Aiestaran. Ansa II-Juanenea / Urriza-Larrañaga.

18:30-20:30 DJon Diskofesta San Juan plazan.

20:30 Jaien amaiera.

URNIETAKO
Gazte
festak
2024

Maiatzak 24, 25, 26
www.urnieta.eus

- www.urnieta.eus
- [@UrnietakoUdala](https://twitter.com/UrnietakoUdala)
- [Urnietako Udala](https://www.facebook.com/UrnietakoUdala)
- [Urnietak App](#)

Eraso matxistei lekurik EZ!

Jaietan oro aske maitatu, aske gozatu.

"Ohore handia da halako protagonismoa hartzea herrian"

IKER LIZARRIBAR ADARRA JUDO CLUB, URNIETA

Elkarteko kideek aitortu dutenez, egundoko ilusioa eragin die klubeko gazteei txupinazoa botatzeko izendapena jaso izanak

Xabier Lasa URNIETA

Adarra Judo Klubak botako du txupinazoa udaletxetik, Gazte Festei hasiera emanez. 2000an Mari Jose Sardonek sortu zuen kluba, eta zazpi urteren ostean utzi, eta Iker Lizarribarrek hartu zuen bere zuzendaritza. Lizarribar heziketa fisikoko irakaslea da Donostiako Santa Teresa ikastetxean, eta hango eginkizunak bete ondoren, arratsaldeetan zein asteburuetan buru-belarri jarduten du Urnieta gazteen artean judoa sustatze aldera. Aitortu duenez, egundoko ilusioa eragin die klubeko gazte guztiei txupinazoa botatzeko izendapena jaso izanak.

Zer moduz, txupinazoaren atarian?

Ohore handia da halako protagonismoa hartzea herrian, eta ilusioz beteta gaude. Egundotan udaletxeko balkoitik zabaltzeko beharreko mezua ari gara prestatzen. Bestalde, 65 bat ikasle osatzen dute kluba, eta denek ezin direnez balkoira igo, bost-pasei hautatu beharko dira; Espainia eta Europako txapelketetan emaitza bikainak lortu dituztenak-edo izango dira horiek, seguruenik.

Egia esan, gizartean oihartzuna edukitzearen ikuspegitik nahiko bazterrean geratzen den kirola da judoa normalki, eta pozgarria da txupinazoak emango digun aukera. Ekitaldia baliagarri gerta daiteke ikusgarritasuna pixka bat lor dezan judoak, eta aldarrika dezagun betiko kirol handiez (futbola, eskubaloia...) gain, Urnietan gazteek egiten dutela beste hainbat kirol, ezezagunak askorentzat.

Urnietako edozein gazterentzat irekita al dago Kluba?

Bai, noski. Sei urtetik aurrera edonor etor daiteke. Asteartee-

tan eta ostegunetan aritzen dira gazteak, eta bi egun horiez gain, helduek ere astelehenetan daukate hitzordua. Lasai etor liteke nahi duenak, gogoia edukiz gero, adinaren eta mailaren arabera hasiko litzateke. Gurean, gaitasun guztiak lantzen saiatzen gara, indarra, abiadura, erresistentzia, teknika... Judoa indarra besterik ez dela pentsa dezake jendeak, eta etorri izan zaigu bat edo beste gimnasiotik indartsu; ederki kostata egokitu ahal izan da judoaren ezaugarrietara.

Klubeko ikasle askok lehiaketa ofizialetan eta torneotan

parte hartzen dute, baina hori ez da nahitaezkoa; badira bestelako aspirazioa daukatenak, gerriko beltza lortzea, esatera baterako.

Zuen ohiko saio bat ikustea nahikoa da oharretako ikasleen artean dagoen giro nobleaz.

Gazteak oso motibatuta etortzen dira judoa egitera. Kirola da judoa batik bat, baina adiskidetasuna, elkartasuna eta antzeko giza baloreak ere lantzen ditugu. Ondo eramaten gara guztiok elkarrekin, eta nik berehala igartzen diet ikasleei zer nolako umorearekin etorri diren klaserara. Baten bat triste edo kez-



Iker Lizarribar, aste honetan Kiroldagian ateratako argazkian. AIURRI

kati badator, bakarkako hizketa saioa egiten dugu.

Egia esan, elkarbizitza handia egiten dugu entrenamenduak direla, ia asteburu txapelketak eta torneoak direla... Lehengoan ikasle batek aipatu zuen Adarra klubak familia baten antzera funtzionatzen duela, eta ez zaio arrazoirik falta. Esate baterako, lehiaketetara joan behar dutenek aparteko prestaketa lanak egin behar dituztenean, beti edukitzen

dituzte boluntarioak laguntzeko, edota lehiaketetan parte hartzen ari direla elkarri animoak ematen aritzen dira batzuk eta besteak.

"ADISKIDETASUNA, ELKARTASUNA ETA ANTZEKO GIZA BALOREAK LANTZEN DITUGU"



Kiroldagian, asteartean, klubeko zenbait ikasle argazkirako bildu ziren. Goian: Iker Lizarribar, Jon Labayen, Amets Carrera, Borja Seco, Daniel Rosco, David Blanco, Urtzi Iriondo eta Oier Duran. Erdian: Urko Gomez, Malen Lizarribar, Elene Lizarribar, Eneko Rosco, Oinatz Iriondo, Mikel Urdampilleta, Erik San Clemente eta Arkaitz Rodriguez. Behean: Jon Iparraguirre, Lucia Pabon, Peio Santos, Maialen Lopez, Maren Iparraguirre eta Ruben Adeniyi Ibikunle. AIURRI

“Su txikian sortzen dugu musika, presarik gabe”

HAMARRETAN MAKULU MUSIKA TALDEA

Gazte Festetako ostiralean ariko da oholza gainean talde urnietarra. Ondoren, Bengo eta Lappa izango dira



Eneko Calonge Maestro, Amaia Ripalda Garbayo, Aitor Valverde Jauregi eta Kenari Arrate Bilbao. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Txupinazoaren ondoren, San Juan plazako oholza gainera igoko da ostiral honetan Hamarretan Makulu talde urnietarra. Urtebete pasatxoko ibilbidearekin, kanta berriak aurkeztuko dituzte. Bezperako egunetan hitzartu dira taldekideak Aiurriekin, Amaia Ripalda Garbayo, Aitor Valverde Jauregi, Eneko Calonge Maestro eta Kenari Arrate Bilbao.

Istoria berezia ezkututzen omen du taldeko izenaren jatorriak...

Saroben egiten genituen entseguak lehen. 20 urte zituztenean Aitorrek eta Enekok, gaueko 00:00k arte gelditzen ziren askotan. Urte dezente jo gabe egon ondoren, berriro ere aretoa erabiltzeko baimena eskatu genuen. 22:00ak bitarteko baimena eman ziguten. Elkartu ginen lehen egunean Ertzaintza etorri zen, bizilagun bat kezaka zegoela medio. Ordutik, 22:00k pasa eta gutxira, pertsona bat jaisten zen makulua eskuan eta

errieta egiten. Hortik dator izena!

Iazko apirilean, Poxta Zaharren urteurrenean jo zenuen lehenengoz. Nola oroitzen duzue momentua?

Nork bere bizipena du lehen egun horrekin. Batzuk deserosoago sentitu ziren oholza gainean, urduriago. Beste batzuek, ordea, oholza ukitu orduko gehiago gozatu zuten. Ez ginen ohituta zuzenekoak ekartzen dituen zereginetara, soinu-frogara, esate baterako. Dena dela, iluntze ederra izan zen, giro paregabea baitzegoen. Hantxe ginen, guztiak, eguzkitako betaurrekoak jantzita eta guzti! Gure lehen kontzertua zen talde gisa; bost bat abesti izango genituen, orduan, bost abesti eta bertsio bat.

"INPROBISAZIOAK EGITEN DITUGU ETA HORRELA ERE ATERA DUGU ABESTIREN BAT EDO BESTE"

Hasiberriak ginen eta pixka bat lotsatuta igo ginen taulara. Finen, ia kasualitatez elkartu garen talde bat gara inolako espektatibarik gabe, eta ez gara musika-estilo jakin batean ixten. Batek ideia bat ekartzen du entsegura eta horrekin jolasten dugu. Gure martxara goaz. Ume txikiak ditugu taldekide guztiak; hala, guretzat denbora hartzeko momentua bihurtu zen taldea, umeak etxean utzi eta laguntaldekideekin ondo pasatzeko aukera. Askotan, inprobisazioak egiten ditugu eta horrela ere ateratu izan dugu abestiren bat edo beste. Era berean, exijenteak ere bagara, ez digulako edozerk balio: abestia iritsi baino lehenago ez daukagu inolako katerik,

"POLITA DA URNIETAN ASKOTARIKO MUSIKA-TALDEAK DAUDELA IKUSTEA"

baina, ondoren, gauza dotoreak egitea gustatzen zaigu, ahal den neurrian, noski! Su txikian sortzen dugu musika, presarik gabe. **Harrezkero, denbora zeneramaten elkartzen. Zergatik egin salto jendaurrera?**

Gazteagotan, Aitor eta Eneko elkartzen ziren bakarrik. Eneko gitarrarekin ibiltzen zen, eta, behin, Aitorrekin parkean zela, Amaia gerturatu eta kantatzera animatu zen. Kenari ere batu zen eta horrela sortu genuen, pixkanaka. Jendeari erakutsi eta "jo egin behar duzue!", esaten zigun. Inertziak eraman gintuen, nolabait, lehen kontzertu hori ematera. Gerora, taldeak ez du publizitaterik egin eta gu ere ez gara mugitu, bizitzako momentu honetan ezin dugulako hara eta hona ibili kontzertuak ematen. Ezin dugu maila horretako konpromisorik hartu. Egun, kanta gehiago ditugu, hamar bat. Bestalde, elkarren artean oso ezberdinak gara taldekideak eta bakoitzak bere moduan bizi du proiektua, nahiz eta gero, guztion artean ondo uztartu.

Urtebete igaro da jendaurrean zuen abestiak erakutsi zenituztenetik. Zer moduzko bidea egin dute?

Gure "hit"-a "Laguna" da, harre-beroa edukitu duena. Guretzat kanta oso berezia da, jada, gure artean ez dauden lagunei eskaintzen diegulako. Abesti berriak ere erakutsiko ditugu asteburuan, lauzpabost gehiago. Halaber, abesti zaharrak zorroz- tu egin ditugu, hobetu.

Sarri, entseguak grabatu egiten ditugu, askotan gerora errepikatzeke gai ez garen ideiak eta proposamenak ateratzen zaizkigulako barrutik, bat-batean. Hortaz, inprobisazioak grabatu, gordeta gelditzen dira. **Lappa herrikideak ere izango dira zuekin batera ostiral gauean.**

Polita da herrian askotariko musika-taldeak daudela ikustea. Adibidez, Sanmieletan, ostegunetan, herriko jendeari ematen zaio bultzada oholza gainera igo daitezen. Aspaldi, Materia eta Cohen taldeak zeuden garaietan, musika-hitzordu gehiago izaten ziren herrian. Orain, hiru talde gaude. Eta horietako batekin partekatuko dugu oholza festetan. Txupinazoaren ondoren izango da, eta jendetza bilduko da plazan. Horrek urduritzen gaitu apur bat, baina animatu dadila jendea! Taldeko kamisetak jarriko ditugu salgai!



2017ko edizioako argazkia. AIURRI

Slalom-txapelketa, igandean, Erratzun

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ohitura bilakatu da Urnietako nahiz herriko inguruko autoen maitaleentzat Gazte Festetan egiten den Slalom txapelketa: igandean, maiatzaren 26an izango da, goizeko 09:00etatik 13:00era bitartean. Xoxoka Motor Klubak antolatuta du eta seigarren edizioa izango da aurtengoa. Erratzuko poligonon, aparkaleku handian izango da hitzordua eta, antolatzailerik adierazi dutenez, puntuagarria izango da Euskadiko txapelketari begira: "Ikusleentzako toki paregabea da, inguruko zelaietatik segurtasunez zirkuitu osoa ondo ikusten da eta!".

Zirkuitua ahalik eta azkarren egitean datza Slalom, errepidean konoak jarrita diseinatzen da lasterkarietzako ibilbidea. Hala, horiek inguratu egin behar izaten dituzte autoek, itzuli osoa emanda, ezkerretik eskubitik... Konoak ikutzeak edota ibilbidea oker egiteak denbora gehitzen die partehartzaileei. "Izena ematen dutenek alde aurretik ondo ikasi behar dute buruz ibilbidea", adierazi du Xoxoka Motor Klubeko kide batek, "ez delako batera erreza hainbeste maniobra jarraian eta ziztu bizian egoki burutzea".

Pandemia garaia igaro denetik, "normaltasunez" antolatzen duten bigarren edizioa da aurtengoa. Era berean, udazkenari begira dira, jada, irail-urri partean egiten duten auto klasikoaren rally-a martxan jartzen hasteko.



Egape Dantza Taldeko kideak, 2019ko Gazte Festetan. AIURRI

Urnieta Dantzan, hitzordu nabarmena, Gazte Festetan

Adin guztietako 140 dantzari udalerriko hainbat plazatan ariko dira, larunbat honetan

Erredakzioa URNIETA

Euskal dantza Gazte Festetako osagai garrantzitsua da, oso presente baitago jaietan. Egape Dantza Taldea garrantzi handiko kultur eragilea da Urnietan, eta, ospakizun-giroan, ez da oharkabeen igaroko haien ekimena. Hasteko eta behin, ostiral iluntzean, Egapeko gazteek erakustaldia eskainiko dute plazan. Eta, igandean, Txanbolinen emanaldiko gonbidatuak izango dira.

Urnieta Dantzan eguna garai bateko ospakizunera itzuliko da, aurtengoan. Plazaz plaza eskainiko dituzte saioak, goizez.

Antolatzaileek emandako datuen arabera, 140 dantzari elkartuko dira aurtén.

Urnieta Dantzan, egitaraua

10:30 Jaialdiaren hasiera plazan, dantzari txikien saio bereziarekin.

11:00 Dantzarien topagunea ikastolan. Dantza saioak: Etxeberri plaza, Ierdi plaza, Zaldundegi plaza, Zubitxo plaza, Plazido Muxika plaza eta San Juan plaza.

12:30 Emanaldi nagusia ikastolako futbol zelaian. Eurria bada, kiroldegian.

Dantzarien erakustaldia, Gazte Festak igaro eta gutxira

Haur eta gazteen ikasturte amaierako emanaldia maiatzaren 29an izango da, arratsaldez, Saroben



Egapeko dantzari txikienak. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Egape Dantza Taldeko txikienek ikasturte amaierako emanaldia eskainiko dute Sarobeko ohol-tzan, datorren maiatzaren 29an. Haur eta gaztetxoek ikasturtean ikasitakoa erakusteko aukera izango dute. Bi emanaldi izango dira, adinaren arabera antolatutako baitute ikuskizuna.

Urnieta Dantzan emanaldia eta gutxira iritsiko da, beraz, dantzari txikien erakustaldia. Joateko asmoa duenak gonbidapena eskuratu behar du aurretik.

Saio bikoitza hilaren 29an

Dantzari txikien ikasturte amaierako emanaldia bikoitza izango da, adinaren arabera antolatutako baitute ikuskizuna. Emanaldia ikusteko gonbidapena behar da. Saioen ordutegia:

- 17:30: HH 5, LH 1, LH 2.
- 19:00 LH 3, 4, 5, 6.

Egapek emandako datuen arabera, 88 dira dantza ikasten ari diren ikasle gazteak.

Haurren emanaldia eta gero, ekainean, gazteek ikasitakoa erakusteko txanda iritsiko da.



Iazko dantzari egunean re izan ziren Orbeldikoak AIURRI

Orbeldi taldea, gonbidatu berezia

Sasoi betean dagoen dantza taldea gonbidatuko dute aurtén. Usurbil aldetik gerturatuko da. Ez da herria bisitatzen duen lehen aldia, ordea, ian ere lauzpabost bider bertaratu baitira Urnietako kaleetan erakustaldia egiteko.

XVIII Urnieta dantzan

Maiatzak
25

10:30 DANTZARI TXIKIEN EMANALDIA
San Joan Plaza

11:00 DANTZARIEN TOPAGUNEA
Egape ikastola

11:30 PLAZARIK PLAZA DANTZAN
Ierdi, Etxeberri, Zaldundegi
Zubitxo, P.Muxika, San Joan

12:30 EMANALDI NAGUSIA
Egape ikastola



Imanol Odriozola, Erlaitz Arrieta, Unai Urdangarin eta abarri esker, pilotak loraldi berria bizi du Urnietan. UKE PILOTA

"Iragan urtetik hona, gorakada handia izan du pilotak, klubean"

IMANOL ODRIOZOLA URNIETA KIROL ELKARTEKO PILOTA SAILA

Pilotazaletasunak aurrera darrai Urnietan. Imanol Odriozolak, zenbait laguntzailerekin batera, Urnietako Kirol Elkarte pilotaren ardura hartu du

Mikel Arberas URNIETA

Gorakada nabarmena izan du pilota atalak, azken urtean. Nolatan hartu zenuen Urnietako pilota eskola kudeatzearen ardura?

Ez da pilota eskola eramatearen ardura, soilik, baizik eta Urnietako Kirol Elkarte pilotaren sailaren kudeaketa; hau da, pilota eskolaz gain, seniorrak eta erramintako modalitateak ere antolatzen aritzen naiz. Zure galderari erantzunez, pilota sailak bultzada bat behar zuela suma-

tu genuen, gazteetatik hasi eta helduenetaraino.

Herritarrek eskertu al dute?

Bai. Horren isla izan da pilota eskolak izan duen gorakada. Ardura hartu eta hilabetera, geroz eta gazte gehiago hasi ziren izena ematen.

Zaila al da pilota eskolaren antolaketa-lana?

Zaila baino gehiago, lana eskatzen du. Modu egokian antolatu eta atzean jende gehiago dagoela jakinda, ongi ari gara.

Zenbat pilotarik, entrenatzailek eta laguntzailek osatzen duzue pilota eskola?

Iragan urtetik gorakada handia izan du klubak. Izan ere, iaz 10-15 gaztetxo gerturatzen ziren frontoira, jarraikotasun handirik gabe, eta sei bat palaz jokatzen. Egun, berriz, berrogeita hamar pilotarik eman dute izena, gutxi gorabehera. Zehaztearren, aurrebenjaminetan, hogeitazazko eman dute izena, benjaminetan hamarrek eta

alebinetan beste hamarrek. Horrez gain, lau pala gomaz eta bi pala motzean ari dira.

Nire kasuan, antolakuntzan eta entrenatzaile-lanetan aritzen naiz; horrez gain, nirekin batera Erlaitz Arrieta eta Unai Urdangarin egoten dira, entrenatzaile eta epaile lanetan. Beste batzuekin batera, talde polita osatzen dugu. Oso eskertuta nago.

Zer ematen dizu zuri pilota eskolak?

Maite dugun kirola sustatzeko aukera ematen digu. Horrez gain, gazteen artean pilota afizioa sorraraztea eta gazte horiek nola hobetzen duten ikustea ere oso pozgarria da, asko betetzen gaitu.

Zein txapelketatan murgilduta zaudete?

Pilota federazioak antolatutako eskolarteko txapelketa jokatu dute hainbat gaztetxok, Buruntzaldean. Horrez gain, pilota eskolan antolaturiko binakako txapelketa jokatzeko ari dira, benjaminak eta alebinak nahastuta; finalak ekainaren 15ean izango dira. Gazte Festetan ere pilota-partidak izango dira, kontzejupean, pilota eskolak antolatuta.

Pilota eskolaren etorkizuna nola aurreikusten duzu?

Urtebetean, gorakada handia ikusi dugu, eta, datozen urteetan, joera hori mantentzea dugu helburu. Ea gutxinaka pilotazaletasun hori sustatzen jarraitzen dugun. Esanak esan, etorkizuna



Artxiboko irudia. UDALA

Kontzejupeko finalak, igandean

Kontzejupeko txapelketak tradizio handikoak dira, inguruotan. Andoainean, San Juan jaietan jokatzeko da, eta, Urnietan, lehen aldiz, Gazte Festetako igandean. Goizeko 11:30ean hasiko dira partidak. Emozio handiko partidak dira parte-hartzaileentzat.

baikor ikusten dugu; epe luzera, gure helburu nagusienetako bat Herriarteko Txapelketa jokatzeko izango da.

"Geroz eta jende gehiago animatzen da rol jokoetara"

DESIRE NAVARETE ETA JOSU VICENTE "HABITANTES DE INNSMOUTH" ELKARTEA

Geroz eta gehiago dira mahai-jokoetan aritzen direnak; tartean dira rol-jokoak. Badira horien berri izango dutenak, baina beste askorentzat, oraindik, arrotzak izan daitezke

Mikel Arberas ANDOAIN

Rol-jokoak, izenak dioten bezala, rol jakin bat antzeztean oinarritzen da, irudimena eta estrategia oinarri, pertsonaia bakoi-tzak dituen ezaugarriak kontutan hartuta. Horrez gain, hiru sail nagusitan girotu daitezke jokoaren historia: batetik, erdiaroko kutsua duten fastasiazko jokoak, adibidez, Erastunen Jauna edo Akelarre. Bestetik, fikzio-zientzian eta teknologian oinarrituta jokoak, hala nola Cyberpunk, Paranoia eta Showrun, beste batzuen artean. Azkenik, beste edozein gaietan oinarritutako jolasak, esaterako, superheroietan edo marrazki bizidunetan oinarritutakoak.

Hari beretik tiraka, jokalariez gain, jokoa gidatzen duen zuzendaria aipatu beharra dago, master deiturikoa. Bera da rol jokoetako parte-hartzaileerik garrantzitsuenak, jokoa gidatzeaz eta bideratzeaz arduratzen dena. Berak esaten duenaren arabera jokatu behar dute parte-hartzaileek.

Zergatik du izena elkarteak "Los Habitantes de Innsmouth"?

Duela 30 urte otu zitzaigun izen hori jartzea. H.P Lovecraft idazlearen obra batean oinarritutako hiri bat da Innsmouth eta, garai hartan, oso famatua bilakatu zen. Horiek horrela, eta "Cthulhu-ren deia" izeneko rol jokoak zegoela aintzat hartuta erabaki genuen izen hori.

Nola antolatzen zarete jokatzeko?

Urte hauetan guztietan, aldatzen aritu gara antolatzeko eta jokatzeko moduak. Elkarteak, adin guztietako kideak daude, gazte-txoetatik hasi eta helduetaraino. Gainera, duela urte batzuk, elkarteak arautegia aldatu behar izan genuen, gazteentzako elkarteak izanik, helduek ere parte hartzen. Egun, 99 urte artekoek rol-ean jokatu dezakete.

Zure galderari erantzunez, batez ere, ostiraletan, larunbategian eta igandetan jokatzeko



Desire Navarrete eta Josu Vicente elkarteak kideak. AIURRI

rol-ean. Badira, aste barruan ere jokatzeko dutenak. Hala ere, Udalaren areto batean gaudenez, eurak ezarritako ordutegia bete behar dugu.

Nolatan sortu zenuten elkarteak duela hiru hamarkada?

Rol jokoetan aritzen ginen zenbait gazte elkarte ginen eta garai hartako kultura teknikariarekin hitz egin genuen, zerbait egin asmoz. Horrela sortu zen "Los Habitantes de Innsmouth" gazte elkarteak, gaur arte. Are gehiago, Gipuzkoako bigarren rol elkarte zaharrena da gurea eta, gutxi gorabehera, 30 kide osatzen dugu.

Bilakaera handia eduki al dute rol jokoak azken 30 urteetan?

Jokatzeko moduan ezetz esango genuke, baina jendartean bai. Zera esan nahi dugu, urte batzuk atzera, frikien eta sozialki baz-

"GIPUZKOAKO BIGARREN ROL ELKARTE ZAHARRENA DA GUREA, ETA 30 KIDEX OSATUTA DAGO"

tertuguak zeudenen denbora pasatzat hartzen ziren horrelako jokoak. Oso estigmatizatu zegoen horrelakoetan jokatzeko. Egun, berriz, normalizatu dago rol jokalaria eta frikia izatea. Seguru aski, asko lagundu dute The Bing Bang Theory edo Stranger Things bezalako telesailak, bertan, naturalki eta forma esplizitu batean azaltzen baitzen rol jokoen esentzia. Horiek horrela, geroz eta gehiago dira probatzera animatzen direnak. Modan dago.

Elkarte gisa Gazte Festetan ere parte hartzen duzue Okaren Jokorekin. Azaldu zertan oinarritzen den.

Pandemia aurretik hasi ginen antolatzen eta, normalean, Gazte Festetako igande goizean izan ohi da. Okaren Jokoa handitu eta gazteak taula gainean parte hartzen du. Dado erraldoi bat bota eta parte hartzaileak arrera egingo du jokoa, eta erortzen den laukiaren arabera, proba bat gaintu beharko du. Parte-hartzea handia izan ohi da eta amaitzean gozokiak ematen dizkiegu bertaratu direnei.



2019ko Gazte Festen hasierako txupinazoa. AIURRI

Jaien hasierako protagonistak, herriko talde eragileak

Azken hamarkadan kultur, kirol eta gizarte mailako eragileak izan dira jaien hasierako protagonistak

Erredakzioa URNIETA

Pandemiaz geroztik, jaien hasiera emateko aukera eman zaie udalerriko kultur, kirol eta gizarte mailako eragileei. Aitortza jasotzen dute, modu horretan, lan azpimarragarria egite duten kolektiboek. Kirol mailan, Adarrak urte luzez lana gogotik egin du Urnietan. Ekimen eta jarraitkortasun hori saritzea erabaki dute, aurretik, jaien hasiera eman diete hainbat taldek. Besteak beste, erraldoi eta buruhandien konpartsa, Egape Dantza Taldea, herriko jai batzordea, Sorginak elkarteak edo

GAZTE FESTAK

PREGOILARIAK

2024	Adarra Judo Club
2023	Etxeberri elkarteak
2022	Sorginak elkarteak
2019	Jai Batzordeak*
2016	Egape Dantza Taldea
2015	Erraldoiak eta burugandiak

*Urte hartan aipamen berezia UKEko futboleko neskei eta eskubaloiko mutilei.

Etxeberri auzo elkarteak. Gertara gogoangarria da protagonistentzat.



AIURRI

Trafikora itxita, larunbategian

Urteak dira Idiazabal kalea itxi egiten dutela, Gazte Festetan. Ibilgailua erabiltzeko asmoa dutenentzat, beraz, adi: larunbategian, goizeko 10:00tan hasi eta gaueko 22:00ak arte Idiazabal kalea festazaleentzat zango da. Era berean, ordu tarte horretan, geldialdiak bi bus geltokitan bakarrik egingo dira. Denda Berriko biribilgunean eta Ermotegi-Langardan.



Begoña Igartua eta etxeokak, hainbat dantzari eta Udal ordezkariak, aurreko igandeko emanaldian. AIURRI

Dantza erakustaldia eta omenaldia, biak, emanaldi berean

Bastero Kulturguneko auditorioan erakustaldi berria egin zuen Urki Dantza Taldeak. Omenaldi kutsua izan zuen, 36 urteko ibilbideari amaiera emango dion Begoña Igartua irakaslea eguneko protagonista bilakatu baitzen. Merezitako agurra jaso zuen

Xabier Lasa ANDOAIN

Urki Dantza Taldeak ibilbide oparoa egin badu, hein handi batean, Begoña Igartua eta bere garaikideek erakutsitako esku-zabaltasunari esker izan da. Urte luzez lanean aritu da Igartua. euskal dantza eta folklorea herrian errotzeko xedez. Egun, dantzan ari dira haurrak, gazteak eta helduak. Hori lortzea ez da gutxi, eta taldea horrela uztea gauza handia da. Iragana, oraina eta etorkizuna baduelako Urki dantza taldeak. Aurreko igandean, Bastero Kulturguneko auditorioan, erakustaldi berria eskaini zuen Urki dantza taldeak. Omenaldi kutsua izan zuen, 36 urteko ibilbideari amaiera emango dion



Begoña Igartua. AIURRI

Begoña Igartua irakaslea eguneko protagonista bilakatu baitzen. Merezitako agurra jaso zuen taldekideen eta ikuslegoaren aldetik.

Dantzaren ikuspegitik, emanaldia oparoa izan zen. Urkiko dantzariak, taldeka, hainbat saio eskaini zituzten. Horietatik guztietatik zenbait ikusgai daude aiurri.eus gunean, "Bideoak" atalean: Ehun eta bikoa, Iturria, Oñatiko Corpus dantzak, Uztai txiki, Orpo punta, Erregelak, Bizkaino, Iurreta Iruñeko Soka Dantza eta Sorgin Dantza.

Andoain Euskal Jaialdia

Ekainaren 2an jomuga berria du Urki Dantza Taldeak, Euskal Jaialdiaren antolakuntzarekin.

Urki Dantza Taldea, Basteron



Begoña Igartua, alaba Maitane Rebe eta dantzari txikiak. AIURRI



Txikiak, gazteak eta helduek erakustaldia eskaini zuten. AIURRI



Ekainaren 2an hitzordu berria dute txikiak, euskal dantzarekin. AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Urki Dantza Taldearen erakustaldia Bastero Kulturgunean

Argazki-bilduma, bideoak...

WEBGUNEAN IKUSGAI

www.aiurri.eus



Urnietako jokalariek eta lagunak Astigarragako futbol zelaian, finala amaitu ostean. AIURRI

Koparik gabe ere, ederra izan da

Urnietako KEko senior mailako emakumezkoak eredugarri izan dira, unean uneko egoerara bikain egokituz. Partidan dena eman zuten eta, amaieran galdu arren, egindako lorpena ospatu zuten. Kopa irabazi gabe ere, ibilbidea ederra izan baita



Irabazlearena ez bazen ere, pozarren hartu zuten saria. AIURRI

Jon Ander Ubeda URNIETA

Irabazteko eta galtzeko moduak daude, eta egoera horietan neur-tzen da talde baten benetako maila zein den. Kirol jardueraz harago, UKEko emakumezkoak eredu izan ziren Astigarragan. Hasteko eta behin, jokoari dagokionez, Urnietako emakumezkoek ez zuten erraz etsi, eta ahaleginak eta bi egin zituzten Orioko taldea garaitzeko. Ez zen posible izan partidako lehen gola oriotarrek sartu zutelako. 1-0 aurreratu ziren markagailuan, eta ez zen gehiago aldatu. Partida amaitu zen, eta urnietarrak ez ziren horregatik burumakur geratu. Burua altza eta zegokien saria hartu zuten, behar bezala ospatuz. Lortutakoa ez baita eskasa. Ez delako frakaso bat finala galtzea. Zer izango ote da, orduan, finalerako bidean gertatu direnentzat? Arrakasta hitza erabiltzea ez da txikikeria, David Cuencak zuzentzen duen taldeaz ari bagara. Egin dezagun atzera, denboran. Iazko abuztu-tuan taldea osatu ezinik zeuden. Azkeneko lehian murgildu eta maiatzaren 18ra bitarteko bidaia, bereziki, azken asteetako, ederra izan da. Bejondeizuela!



Urnietarrak saiatu ziren aurkariaren atea zulatzen. AIURRI



Orioko taldeak kiroltasun keinua izan zuen urnietarrekin. AIURRI



Emozio handiko egunak izan dira jokalarientzat. AIURRI



Urnietako
udala



Majori Kiroldegian igoera ospatu zuten Leizarango kideek, zaletuekin batera. Final Fourra irabazita, Euskal Ligan ariko dira. LEIZARAN

Euskal Ligan ariko da Leizaran Ernio taldea

Urriaren lehenean hasi eta maiatzera bitarte, sekulakoa egin du Xabier Amianok zuzentzen duen Leizaran Ernio Inmobiliaria taldeak. Lorpena ikusgarria da Andoaingo klubarentzat, hurrengo denboraldian senior mailako biak Euskal Ligan ariko baitira

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Legazpiarrekin eta ordiziarrekin lehia estuan aritu dira liga erregularrean, eta igoera-fasean. Euskal Ligarako bi txartelen bila abiatu ziren, udaberrian, Leizaran, Legazpi, Ordizia, Deusto, Askartza eta Gure Auzune. Igoerako fasean txapelduna –eta Euskal Ligara igotzen lehen taldea– Legazpi izan zen. Bigarren eta bosgarren sailkatuen artean, berriz, final four txapelketa jokatu zen aurreko asteburuan. Denboraldiko azken txapelketa Ordiziako Majori kiroldegian antolatu zuen Gipuzkoako Federakuntzak. Honatx, final fourreko finalurrekoak:

- 28-22 Ordizia-Deusto.
- 29-22 Leizaran-Askartza.

Finala jokatzeko zegoen, ordiziarren kantxan. Itxuraz abantaila goierritarrentzat zen, bai-

na partidak jokatu egin behar dira, eta luzapenean andoaindarrak nagusitu ziren:

- 26-22 Leizaran-Ordizia.

GORANZKO JOERA ETENGABEA ERAKUSTEN DU TALDEAK

Azken denboraldietan goranzko joera etengabea izaten ari da Leizaran Ernio Inmobiliaria taldea. Bigarren mailatik Euskal Ligara igo dira: 2 maila gorantz, 3 denboralditan. Txalotzeko moduko ibilbidea osatu dute, beraz.

2021-2022 | Bigarren maila Lorpena: Lehen mailara igoera

Ligan 17 partida irabazi zituzten, eta bakarra galdu. Kopa jokatu zuten, jarraian, eta lehiaketa hartan ere bikain aritu ziren: ligaxkako 8 partidak irabazi ostean, finalean Txingudi garaitu zuten (27-22).

2022-2023 Lehen maila

Lorpena: Play-offerako sailkapena Bigarren mailatik igo eta aurrealdean jarraitu zuen Andoaingo taldeak. Ligan hirugarren sailkatu ziren, 22 partidatik 15 irabaziz eta 7 galduz. Igoera fasean, finalurrekoan, Ordiziarren aurka galdu zuten. Euskal Liga gertu izan zuten, orduan.

2023-2024 | Lehen Maila

Lorpena: Euskal Ligara igoera Apirilean amaitu zen liga erregularra eta bertako sailkapena adierazgarria da, oso. Legazpi, Leizaran eta Ordizia sailkatu ziren, hurrenez hurren. Ligak utzitako argazkia, beraz, ez da aldatu. Ligako lehen bi sailkatuak igo dira. Denboraldi osoan (eta azken urteotan) landutako fruitua jaso du Andoaingo taldeak, merezimendu osoz.



ZUMEATARRA

Septien, Iruñean txapeldun

Asier Septien andoaindarra Espainiako txapeldun berria da distantzia erdiko triatloian eta aquabike kirol jardueran. Aurreko asteburuan eskuratu zuen saria, Iruñean. Aquabike? Triatloian modalitate bat da, igeriketa eta txirrindularitza bere baitan hartzen dituen. Hemen ez da oso ohikoa, baina Europan bai.




RFEA

Munduko onenen artean

Andoaingo Txirrindulari Eskolako Izaro Etxarri eta Irati Aranguren junior mailako Flandriako Itzulian aritu ziren, aurreko asteburuan. 74,3 kilometroko ibilbidean, harbideko zazpi eremu eta sei gain igo zituzten. Munduko onenen artean, Aragurenek 49. postuan amaitu zuen. Etxarrik ezin izan zuen proba amaitu.

Aretxabaletan, garaile

Otala Zelaiko krosean Urkulu urtegiaren bira emango diote lasterkariak, eta aurtengo edizioan Javi Menta andoaindarra nagusitu zen. Pozarren zegoen lasterkaria, iazko denbora hobetu baitzuen. Zumeatarra elkarteko korrikalaria urte osoan sasoiko dabil, han eta hemen probak irabaziz edo emaitza bikainak eskuratuz.



GOIENA

Euskal Herriko Bakarkako Segala Liga

Euskal Herriko XV. Bakarkako Segala Ligari ekingo diote datorren asteburuan, Goiatz herrian, Almitza Segala Elkartek antolatuta. Malou Henriksen eta Julen Gabirondo Andoaingo eta Urnietako ordezkariak izango dira

Erredakzioa ANDOAIN

Igande honetan jokatuko dute lehen saioa, goizeko 11:30etik hasita. Nazioarteko eran jokatuko dute, eta honako lanak egin behar dituzte: emakumezkoek 5x7 (35 metro karratu), eta gizonezkoek 10x10 (110 metro karratu). Belaunaldi desberdinetako 41 segalariek hartuko dute parte, hiru maila ezberdinetan: Emakumezkoak, 12 segalari; gizonezkoak, 14; beteranoak, 2; eta, gaztetxoak, 13. Gipuzkoarrak eta nafarrak dira, nagusi. Julen Gabirondo eta Malou Henriksen gertuko ordezkariak lehiakorrek dira eta maila txukuna egiten ahaleginduko dira.



Malou Henriksen eta Julen Gabirondo, artxiboko irudian, Zizurkilén. AIURRI



Zegama-Aizkorri, igandean

Mendi lasterketa guztien artean sona handiena lortu duena igande honetan izango da. Bertako kideen artean Asier Rajado andoaindarra dena emateko prest dago. Edizio guztietan parte hartu duen Mikel Legarreta urnietarra ere irteeran izango da. Aurten ere parte hartzeko eta helmugara iristeko prest dago. Marka da, gero! Edizio guzti-guztietan parte hartu baitu.

Urnietara iristear da "Erremontari herriz herri"

Loitegi eta Eskudero bikote izango dira, lehen partidari. Ansa Urriza handiaren aurka lehiatuko da, bigarrenen

Erredakzioa URNIETAN

Aurreko astean aurkztu zuten ekimena, jendaurrean. "ETBren laguntzarekin, erremontea beste herri batzuetara zabaldu nahi izan dugu, jendeari kirol hau modu zuzenean eta ikusgarrian

ezagutzeko aukera emanez", horixe da Oriamendi enpresako arduradunen xedea eta lehenengoetako geltokia Urnietan izango da. Igande arratsaldean jokatuko dira partidak, Urnietako eta Andoaingo erremontisten

parte-hartzearekin. San Juan jaietan saio berria antolatuko dute, Andoainen.

Urnietan, igande arratsaldean

Ansa II eta Urriza handia aurrez aurre ariko dira, Urnietan. 18:00tan hasiko da "Erremontari herriz herri" jaialdia. Udal pilotalekuan bi partida jokatuko dira set formatuan. Partidak:

- Loitegi-Eskudero / Zaldia II-Aiestaran.
- Ansa II-Juanenea / Urriza-Larrañaga.



Urriza handia, lehen planoan. ORIAMENDI

MAIATZAK 23 OSTEGUNA 17:30EAN

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

SAGARDOAREN TXAPELKETA

2 0 2 4

01. partida (3 setera)

GURRUTXAGA · GOIKOETXEA VI vs SUSPERREGI · ESKUDERO

02. partida (3 setera)

SEGUROLA · LARRAÑAGA vs LOITEGI · BARRENETXEA IV

03. partida (3 setera)

BEREZIARTUA ANSA II · ZUBIRI vs ALARRENEA EZKURRA II · AZPIROZ

SARRERAK ENTRADAS

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 24

URNIETA Gazte Festak

Asteburu osoko ekitaldiak, Urnietan. Egitarau osoa astekariko 2. orrialdean aurki daitezke. **16:30ean hasita.**

ANDOAIN Ikuskizuna

"Sex sua" musikala, dantza eta musika Andoni Mutiloaren eskutik. **20:00, Bastero.**

URNIETA Matrikulazioa

Lourdes Iriondo Musika Eskolan 2024-2025 ikasturterako matrikulazioa egiteko epea zabalik dago. Informazio gehiago Lekaio Kultur Etxean.

Azken eguna: Maiatzak 31.

ANDOAIN Kanpaina

Herritarrek euskaraz hitz egin dezaketen guneak identifikatzen dituen ikurra da Euskaraz barra-barra.

Informazioa: 943 300 831.

Ekimena martxan da.

URNIETA Lehiaketa

2024ko Sanmiel jaietako kartela diseinatzeko lehiaketa. Irabazleak 500 euroko saria eramango du. Oinarriak: Urnieta.eus.

Azken eguna: Ekainak 28.

LARUNBATA 25

ANDOAIN Ospakizuna

1974 urtean jaiotako bazkaria egingo dute Oianume jatetxean.

12:00, Zumea plaza.

PASAIA Gipuzkoa Bertsotan

Andoni Mujika Izagirre "Anatx" urnietarrak txapelketako bigarren saioan parte hartuko du, beste bost bertsolarirekin batera.

17:00, Donibane Kulturgunea.

ASTELEHENA 27

URNIETA Odol-emaileak

Odola eman nahi dutenek hurrengo telefono zenbakira deitu beharko dute hitzordua zehazteko: 943 00 78 85.

Gaztelekua.



Luis Fraca, 2016ko Kaletxikiko jaietan, Gora Kaletxiki Bandako kideekin. AIURRI

ANDOAIN "Don Luis" Fraca Royoren omenezko kontzertua

Udal Musika Banda eta Musika Eskolako zuzendaria izandakoa gogoan hartuko dute, "In Memoriam" izeneko jaialdian. Andoaingo Udalak omenezko kontzertua antolatu du, musikari eta herrikide askorentzat ezinbesteko erreferentzia izan zelako.

Maiatzak 26, igandea. 12:30. Bastero Kulturgunea.

ASTEARTEA 28

ANDOAIN Parketarrak

Euskara eta aisialdia, elkar lotuta. 17:15, 3-5 urte bitartekoentzat. Heldu batekin lagunduta 18:15, 6-9 urteko haurrentzat. **Goikoplaza.**

URNIETA Dantza

Egape dantzari txikien emanaldia, ikasturteari amaiera emateko. Gonbidapena beharrezkoa da saioa ikusteko.

17:30, HH5, LH 1, LH 2.

19:00, LH 3, 4, 5, 6.

Sarobe.

ASTEAZKENA 29

ANDOAIN Parketarrak

Euskara eta aisialdia, elkar lotuta. 17:15, 3-5 urte bitartekoentzat. Heldu batekin lagunduta 18:15, 6-9 urteko haurrentzat. **Maiatzak 22 eta 29. Zumea plaza.**


OSTIRALA 31

ANDOAIN Ikuskizuna

"Itsasoa bide bakarra" musika eta folklorea Ines Osinagaren eskutik. Aiurrik lau sarrera bikoitz zozkatuko ditu.

20:00, Bastero.

ZINEMA



ANDOAIN


BASTERO

La casa

Lar, 25. 19:30, 22:00.
Igandea, 26. 19:30.
Asti, 27. 19:30, 22:00.

Amigos imaginarios

Lar, 25. 17:00, 22:00.
Ig, 26. 17:00.



SINOPSISIA



La Casa

Zuzendaria: Alex Montoya. **Gidoia:** Alex Montoya, Joana M. Ortueta. **Aktoreak:** David Verdager, Oscar de la Fuente, Luis callejo, Olivia Molina, Maria Romanillos... **Herrialdea:** Espainia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, familia. **Iraupena:** 83 min.

Komikitik fikziora, pantaila handira

Aita hil ondoren, hiru anai-arreba elkartzen dira haurtzaroko udak igaro zituzten familiaren etxean. Etxebizitzarekin zer egin erabakitzea tokatzen da, eta deliberazioa hori uste baino zailagoa bilakatu da.

Paco Roca komikigileak izen bereko komiki-liburua argitaratu zuen, nazioarteko arrakasta lortu zuena. Ez da sarri gertatzen komiki bat fizikio bilakatzea, eta pantaila handira eramatea.



andoaINDARRA
euskaraz

KOMUNITATEA

POZTA ZAHAR URNIETA

Iristear dauzkagu Gazte Festak...

Aurten, ostegunean emango diegu hasiera ospakizunei II.Pintxo Leihaketaekin tabernaz taberna! Ostiral arratsaldean, herri-giroan jarraitzeko, Olinpiadetako finala ospatuko da eta, ondoren, "Heldu festak" gaiarekin afari tematiko autogestionatua antolatu dugu (tiketak 3 euro). Segidan, gauari jarraipena emateko, San Juan plazako kontzertuen ondoren, DJ Atxukarro izango dugu.

Larunbatean, urtero lez, mahoiz jantzita, sagardo-dastaketa egingo dugu eta, ondoren, herri bazkaria. Guztia San Juan plazan izango da (sagardotegi menua edo begetarianoa aukeran, 21 eurotan). Arratsaldean, txarangarekin alaituko ditugu kaleak eta, gauean, DJ Alabarrunak piztuko du herria!

Afariko eta herri bazkariko tiketak Matxo eta Frontoian salgai. *Muttu zaitzte!!*

KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLA URNIETA

Eskuko telefonoak biltzeko kanpaina

Egape ikastolako DBH 3. mailako ikasleek "Zeure mugikorrek ezkututzen duena" unitatea landu dute. Lanketa horren ondorioz, Alboan Gobernu Kanpoko Erakundearen eskuko telefonoen bilketa-kanpainan parte hartzeko konpromisoa hartu dute, gatazka-mineralaren ondorioak jasaten ari diren Kongoko herritarrei lagundu asmoz.

Ikasleek ekimena erabili dute kanpaina diseinatzeko eta gure eskola komunitatean abian jartzeko. Horrela, modu kooperatiboan lan eginez, kanpaina ezagutarazteko kartelak sortu dituzte eta herriko kaleetan eta sare sozialetan zabaltzeko dituzte. Gainera, Egapeko LHko eta DBHko ikasleriari kanpainaren berri eman die, beraiek sortutako aurkezpenez baliatuz. Familiei kanpainaren berri emateko gutunak idatzi eta bidali dituzte.

DBH 3. mailako ikasleen erronka da ahalik eta mugikor gehien biltzea GKeri emateko. Gehienok etxeetan erabiltzen ez ditugun mugikorrek izaten ditugunez, mugikor horiek Egapeko bi eraikinetan, LHn eta DBHn, jarri ditugun kutxetan uztera animatzen zaituzte. Kutxak eraikinen sarreretan daude maiatzaren 29ra bitartean. *Guztion ekarpena da garrantzitsua. Bat egin ekimenarekin!*

Andoaingo Kultura Mahaia bilduko da ostegun honetan

Herriko eragileak, elkarteak, taldeak eta norbanakoak deituta daude bertako partaide izatera

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak "Kultura Loratzen" izeneko egitasmoa aurkeztu zuen, iazko azaroan. Herriari bizitza ematen dioten eragileekin hausnarketa prozesua izan zen, herriko dinamikaz analisia egiteko. Aholkulari profesionalak gidatu zituzten saioak, hiru denera, "hausnarketarako, eztabaidarako eta proposamenak biltzeko". Helburua bikoitza zela dio Udalak: "Batetik, irakurketa partekatua gauzatzea. Bestetik, etorkizunean gure herriko kul-

tura arloko bide orria zein izan beharko lukeen marraztea". Hiru ondorio argi atera ziren:

- Kultura Mahaia eratzearen beharra, herriko eragile, elkarte, talde eta norbanakoak baltuko dituen.
 - Herriko egutegi bateratua sortzearen beharra.
 - Tramite administratiboetan herriko eragileei sostengu eta laguntza eskainiko dien laguntza teknikoa eskaintzea.
- Eragileen lehen bilera ostegun honetan izango da.

Lourdes Iriondo Musika Eskola, ikasturte berria jomugan

2024-2025 ikasturterako matrikulazioa egiteko epea maiatzaren 31ra bitarte egongo da zabalik

Erredakzioa URNIETA

Lourdes Iriondo Musika Eskolan 2024-2025 ikasturterako matrikulazioa egiteko epea maiatzaren 31ra bitarte dago zabalik. Interea duen haurraren gurasoek matrikularen inprimakia bete eta lourdesiriondo@urnieta.eus helbidera bidali beharko dute. Izena eman aurretik informazio osagarria emateko prest daude Lekaio kultur etxean. Orduetgia honako hau da: Astelehenetik asteazkenera, 09:00etik 13:00era eta 16:00tik 18:00ra; osteguna eta ostirala, 09:00tik 14:00ra. Telefono-zenbakia 943 00 80 33 da.

Musika eskolaren eskaintza

- Musika tailerra, 4-6 urtekoentzat. Musika eta mugimenduen bidez kantua, entzumen-heziketa eta erritmoa lantzen dira. 45 minutuko 2 saio astean.
- Musika hizkuntza. Astean ordubeteko bi saio.
- Instrumentua. Pianoa, trikitixa, biolina, klarineta, saxofoia, tronpeta eta perkusioa. Astean ordu erdiko saio bat.
- Instrumentu taldeak: instrumentua urte batez ikasi ondoren, ikasleek taldekako eskoletan parte hartzeko aukera izango dute.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Aia Korta Martinez
3 urte beteko ditu maiatzaren 28an. Segi orain arte bezain alai. Muxu handi bat etxekoan eta bereziki Aratzen partez.



ANDOAIN
Ixaso
Zorionak Ixaso! Oso ondo pasa zure egunean, maiatzaren 24an. Gozatu! Zure pixukideak!

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Maiatzak 27, astelehena.

URNIETA Gaztelekua:

Joan aurretik deitu: 943 007 885.

KOMUNITATEA

ETENETA ELKARTEA

URNIETA

Bazkide gonbidatua, Eteneta elkarte berrikuntza

Urnietako Eteneta elkarte gastronomiko kulturalak barne araudia aldatu du bazkide berriei sarrera emateko. Horretarako "Bazkide Gonbidatua" figura sortu du.

Informazio gehiago nahi izanez gero jarri harremanetan helbide elektronikoa honetan sociedadetenetaurnieta@gmail.com edo WhatsApp bidez 660556162 zenbakian

ALTUNA
SAGARDOTEGIA - SIDRELLA

Eskariak: 943 554 917 - 650 266 925

Galarraga baserria, Lategi auzoa 5, URNIETA. @altuna_sagardotegia

egunean behin?

Egunean Behin 15D martxan da!

"Aiarri" taldeko asteroko zozketa: Altunako sagardoa

Bisitaldi gidatua, Buruntzako tontorrera

Buruntzan barrena bisitaldi gidatua egingo dute larunbat goizean, 2021ean eraitsi zuten gurutzearekin eta memoria historikoarekin lotuta. Ekitaldi berean, “*Jainkoagatik eta Espainiagatik eroritakoen*” Buruntzako gurutze frankista liburua aurkeztuko dute

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo frankistaren biktimen oroimenaren eta eskubideen alde lan egiten duen Oroituz elkarteak antolatu du ekitaldia. Bisitaldia Kanposantu Zaharretik abiatuko da (Buruntzako San Martin eliza zaharra), 09:30ean, eta hiru orduko iraupena izango du gehienez.

Antolatzaileek adierazi dute ibilbide zirkularra egingo dela Buruntza auzoko zenbait parajetan barrena, eta bere tontorrera igo eta San Roke baselizatik igaroko dela. Ibilbidean, auzoko eta Andoaingo memoria historikoarekin zerikusia duten hainbat gai azalduko dira; hain zuzen, gai horiek eta beste hainbat, aipatu den liburuak jasotzen ditu.

Liburua larunbatean bertan plazaratuko dute

Buruntzako gurutzearekin lotuta idatzi den liburuak aurkezteko probestuko du bisitaldia Oroituz elkarteak, larunbatean.

Elkarteak zehaztu duenez, bi hizkuntzetan idatzi du “*Jainkoagatik eta Espainiagatik eroritakoen*” Buruntzako gurutze frankista liburua. 142 orrialde ditu, eta iraganeko eta egungo makina bat argazkirekin hornitu du.



Buruntzako gurutzea, 2021eko abendan eraitsi zutenean. AIURRI

Ikerketa-lana atontzeko orduan era guztietako iturriak erabili dituela gehitu du elkarteak: besteak beste, prentsa historikoa, artxiobotako dokumentazioa, bizilagunen testigantzak, dokumentazio grafikoa, Buruntzako tontorrean eta San Roke ermi-

TONTORREAN ETA SAN ROKE BASELIZAN AZALPEN UGARI EMANGO DITUZTE BISITALDIAN

tan bertan egindako landa-lanak...

2021eko abenduan Ernai gazte elkarteak Buruntzako gurutzea eraitsi izana eta ondorengo erreakzioen kronologia (herritarren komentarioak, Andoaingo eta Lasarte-Oriako

BURUNTZAKO GURUTZEAREKIN LOTUTAKO LIBURUAREN BERRI EMANGO DUTE

Udalen gaitzespen-adierazpenak, memoria-taldeen prentsa-oharrak, salaketa judiziala...) ditu sorburu liburuak. Baina gertaerak horiek aitzakiatzat hartuta, Buruntza auzoarekin eta memoria historiko antifrankistarekin zerikusia duten gai mordoak jorrazten dira, 14 atalengan.

Atal horien edukiak labur-labur aurreratu ditu elkarteak:

- 1939a baino lehen Buruntzako gailurrean gurutzerik egon ez zela frogatzen duten hainbat iturrien aipamena;
- 1910 aldera eraikitako San Roke baselizaren inguruan XIX eta XX. mendeetan jarritako gurutzeak;
- Buruntzako tontorrean 1935ean zutitutako mendizaleen postontzia, Euskal Herriko zaharrena; auzoko bizilagunen bizipen erlijioso eta ludikoak;
- Andoaingo okupazio militarra 1936ko uztaileko kolpe militarren ondoren eta Errepublikaren aldekoen erresistentzia Buruntzako gailurrean;
- Errepresioaren eskutik frankistek andoaindarren aurka sistema totalitarioa ezartzea;
- Udal frankistak eta Falangek 1939an Buruntzako tontorrean gurutzea zutitzea; politika eta erlijio katolikoaren arteko harreman estua Espainiako Estatuan frankismo garaian eta ondorengo demokrazian, Errepublikaren parentesi laikoaren ondoren (1931-1936);
- Auzotarrek hainbat hamarkadatan baselizari erakutsitako debozioa eta, kontrajarrita, 1939ko gurutzeari erakutsitako atxikimendurik eza;
- Gizartearen sekularizazioa, Euskal Herriko tontor askotan



Euskarako liburuaren azala. OROITUZ

- erlijio-ikurrei eustearekin kontrajarrita;
- Hainbat hamarkadatan Buruntza mendiaren ingurune naturala eta auzotarren bizikaltatea kaltetu duten hainbat egitasmo (harrobiak, errepi-deak, AHTaren tunela, hiri-gintza-plangintzak...);
- Euskadiko (2023) eta Espainiako Estatu (2007 eta 2022) memoria historikoari buruzko lege berriak, sinbologia frankistari dagokienez;
- Buruntzako gurutzea eraitsi ondorengo kronologia (gaitzespen ofizialak, prentsa-oharrak, salaketa judiziala, ikurrina jartzea...);
- 2021az geroztiko erreakzio eta gertakari horiekin lotutako hainbat gogoeta kritiko (Franco hil osteko trantsizioak fraskismoaren krimenei eskainitako inpunitatea, gaurdaino iraun duena, besteak beste);
- Oroituz taldearen etorkizunarako proposamena, eraitziko Buruntzako gurutzearen gainean.

La Fuga Mendi Lasterketa, preso iheslarien omenez

Klaudio Rezola eta Ivan Piñon andoaindarrak 53 kilometroko lasterketaren lehen edizioan irten ziren

Xabier Lasa ANDOAIN

Aurreko igandean La Fuga Mendi Lasterketaren lehen edizioa ospatu zen, Nafarroako hiriburutik gertu dagoen Ezkabatik Urepelera (Nafarroa Beherea) doana. GR seinaleztatutako ibil-

bidea da, eta lehen aldiz lasterketa egin dute bide malkartsu hartan barrena. Kirola eta oroimen historikoa uztartzen dituen proba berezia da. Historian atzera eginez, 1938an, Ezkabako kartzelatik 795 preso errepublikanok

ihes egin zuten. Haietatik guztietatik 3k soilik zeharkatu zuten Espainia eta Frantziaren arteko muga. Iritsi zen horietako bat Jovino Fernandez izan zen. Haren izena daraman eskultura altxa dute Urepelen. Gainerakoak, ihesaldiko hainbat tokitan, atxilotu egin zituzten. Eta atzemandako 205 tokian bertan erail eta lurperatu zituzten.

Lasterketaren lehen edizioan bi andoaindarrek parte hartu zuten: Ivan Piñon eta Klaudio Rezola.



Klaudio Rezola, Ezkabako gotorlekuan, korrika hasi aurretik. AIURRI